



FAMILIENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

Urtarrilaren 25eko 9/2023 Ebazpenean aurreikusitako prozedura 2022-2023 ikasturtean ikastetxean matrikulaturik ez dauden haurrei aplikatuko zaie.

Ikaspostua eska dezakete:

- 2021an eta 2022an jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak, eta urte bat baino gutxiago duten haurrentako instalaziorik badago, 2023an jaiotakoek.
- Erditzeko aurreikusitako data egiaztatzen duen mediku-agiria aurkeztuta, jaiotza 2023-2024 ikasturtearen hasiera baino 16 aste lehenagorako aurreikusia duten haurren gurasoek.

Ikastetxeetan hasteko, haurrek 16 aste beteak izanzen dituzte, edo urtebete ikasturtea hasi baino lehen baldin eta ikastetxeek urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez badute. Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, horren egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

ESKAERAK

ON LINE Burlatako Udalaren web orriaren bidez:

<https://sedeelectronica.burlat.es/preins-eskola-haur/>

AURREZ AURRE Burlatako Udalaren Haur Eskolan. (Altolaguirre, 1 Tel. 948 382669) bizkarmendia@burlat.es eta Egunsenti haur eskolan (Bakearen pasealekua, z/g Tel. 619817577 eigun@navarra.es)

Eskaera jasotzea: bi eskoletan, Burlatako Udalaren web orrian eta www.navarra.es -en (bilaketa: haur eskolen aurreinskripzioa)

ENTREGATZEKO EPEA: 2023ko martxoaren 6tik 17ra

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

a) Eskaera baldin bada oraindik jaio ez den haur batentzat, aurreikusitako jaiotze-data egiaztatzen duen mediku-txostena erantsiko da. Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, jaiotze-data egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

b) Amaren eta aitaren edo legezko ordezkarien NAN, pasaporte, atzerritarrendako bizileku-txartel, nortasun-agiri edo agiri baliokidearen fotokopia.

c) Familia nork osatzen duen frogatzen duen dokumentazioa:

–Familia liburuaren fotokopia edo, horrelakorik ezean, antzeko agiri ofizial osoarena. Familia-nukleoan baldin badaude familia-liburuan jasota ez dauden seme-alabak, beste agiri ofizial batzuen bidez egiaztatu beharko da hori.

–Haurra familia-harreran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.

–Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, hura ezartzen duen epai judiziala edo legez frogatzen duen dokumentua.

–Hala badagokio, familia unitateko kideren batek %33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

–Familia ugariaren titulua.

–Familia gurasobakarraren titulua.



d) Amaren eta aitaren edo legezko ordezkarien lan egoera edo egoera akademikoa frogatzen duen dokumentazioa:

–Besteren konturako langileen kasuan, aurreinskripzioaren epea bukatzeko egunaren aurreko 30 egunetan Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean alta emanda zegoela frogatzen duen agiria.

–Norberaren konturako langileen lan egoera frogatzeko, aurreinskripzio-eparen muga egunaren aurreko 30 egunetan mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean eta ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda zegoela frogatzen duten agiriak beharko dira.

–Langabeen kasuan, enplegu eskariaren txartela.

–Eszedentzian egonez gero hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu behar da. Lan egoera aktibotzat hartzeko, idatziz zehaztu beharko da lanera itzuliko dela ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdi baino lehen.

–Eskara aurkezteko unean ikasten arituz gero, matrikularen, ikasturteko egutegiaren eta ordutegiaren frogagiriak aurkeztuko dira.

–Kasua bada, gurasoetako bati edo familia unitatearen legezko tutoreei ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaiezintasun handiagatik pentsio bat dagokiela frogatzen duen agiria.

e) Errenta mailak frogatzeko agiriak:

–Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortzenen fotokopiak, familia unitatearen kide konputagarri guztienak. Aitorpena egitera behartuta ez badaude, hori frogatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, bai eta bestelako errentak edo diru-sarrerak jasotzen direla frogatzen duena ere, edo, azken buruan, horien gaineko zinpeko aitorpena eta/edo ikastetxearen titularra den toki erakundeak familiaren 2021eko diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak, edo 2022ko diru-sarrei dagozkienak, onarpen prozesua 2023ko ekainaren 30aren ondoren egiten bada.

f) Amaren, aitaren edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia eraginpeko eremu geografikoan dagoela frogatzen duen dokumentazioa:

–Erroldaren ziurtagiria, kasuan kasuko udalak emana, jasotzen duena bai haurra bai haren gurasoetako bat gutxienez edo haurraren legezko ordezkariak udalerrian erroldatuta daudela 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, edo, udalerrri horretara bizitzera joan badira lanagatik edo haurrarekin bizi den gurasoari dagozkion beste arrazoi justifikatu batzuk daudelako, udalerrri horretara bizitzera aldatu diren eguneko ziurtagiria.

–Jaio gabeko haurren kasuan, haurraren aitaren eta/edo amaren edo legezko ordezkarien erroldaren ziurtagiria.

–Kasua bada, haurraren zaintza eta jagoletza duen guraso edo legezko ordezkariaren lantokia frogatzen duen dokumentazioa.

–Bizilekuz aldatzea aurreikusi bada, etxebizitza berria ikasturtea hasi baino lehen emanen dietela frogatzen duen agiria aurkeztea baloratuko da. Kasu horretan, gaur egungo bizilekua zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizileku berria, berriz, baremazioa egiteko.



g) Sarbide zuzenerako baldintza bereziak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa:

–Haurren desgaitasuna kalifikatzeko ziurtagiria edo haurren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztagiria, eta/edo profesional batek egindako txostena, berariazko hezkuntza premiak ekar ditzaketen ezaugarriak deskribatzen dituen.

h) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak:

–Egoera frogatzeko txosten bat, mediku edo psikologo batek, gizarte zerbitzuek edo zerbitzu espezializatu ofizialek egina.

ZERRENDAK ARGITARATZEA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2023ko maiatzaren 9ean.

Tokia: Burlatako Udalaren Haur Eskola (Altolaguirre, 1 tel. 948 382669), Hezkuntza Departamentuko Haur Eskola (Bakearen Pasealekua, 4; tel.: 948 240409), Nafarroako atariko tramiteen katalogoan eta Burlatako Udalaren web orrian.

ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA: 2023ko maiatzaren 9etik 12ra.

Tokia: Burlatako Udalaren Haur Eskola eta Hezkuntza Departamentuko Haur Eskola. Hautapen Batzordeari zuzenduko zaizkio, behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikusteko zergatik eskatzen den azalduz. Ez da inolaz ere onartuko eskaerak aurkezteko epean aurkeztu ez den dokumentazio berririk, non ez den aurkezten akatsak zuzentzeko, hasieran aurkeztutako dokumentazioa falta den moduan.

BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2023ko maiatzaren 18an.

Tokia: Burlatako Udalaren Haur Eskola (Altolaguirre, 1 tel. 948 382669), Hezkuntza Departamentuko Haur Eskola (Bakearen Pasealekua, 4; tel.: 948 240409), navarra.es atariko tramiteen katalogoan eta Burlatako Udalaren web orrian.

MATRIKULA

MATRIKULA FORMALIZATZEA: 2023ko maiatzaren 18tik 25era.

Tokia: Burlatako bi haur eskola publikoetako edozeinetan.

. Burlatako Udalaren Haur Eskola. Altolaguirre, 1 Tel. 948 382669

. Hezkuntza Departamentuko Haur Eskola. Bakearen Pasealekua, 4 Tel. 948 240409

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartillaren edo txartelaren fotokopia.

b) Matrikulari dagokion kuota ordaindu izanaren egiaztagiria.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2022ko aitortenaren fotokopia, amarena eta aitarena edo legezko ordezkariena. Aitorpen hori egin beharrik ez bada, hori frogatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da edo bestelako errentak edo diru-sarrerak jasotzen direla frogatzen duena,edo, azken buruan, 2022. urteari dagozkion errenten edo diru-sarriren gaineko zinpeko aitorpena eta/edo ikastetxearen titular den toki erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak, kalkulatzeko familiak zer diru-sarrera izandituen urte horretan.

Agiri hori, beranduenez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2022ko



aitorpenaren kanpainaamaitzen den egunean aurkeztu beharko da.

d) Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kontu zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakiaagertzen dituen.

e) Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurrari behar duen arreta eman dakion.

f) Kasua bada, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jaiotzengatik familia-unitateko kideen kopuruanegondako aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa.

OHARRAK ETA DATUAK EGIAZTATZEA

- Matrikula egiteko, beharrezkoa da haurrak 16 aste beteak izatea ikasturtea hasten denean, edo 12 hilabete, urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez duten ikastetxeen kasuan.
- Ezarritako epean matrikularik egiten ez bada, ikaspostuari uko egin zaiola ulertuko da, eta beste bati esleituko zaio itxaron-zerrendako hurrenkerari jarraikiz.
- Eskatutako aukeretako batean matrikula egiteak berekin ekarriko du ikastetxe bereko beste aukerei edo herri bereko beste zeinahi ikastetxetako aukerei uko egitea, ikastetxearen titularra den toki entitateak hala ezartzen duen udalerrietan.
- Alegatzen den egoerari buruzko frogagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.
- Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, hango puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.
- Hautapen Batzordeak noiznahi eska dezake interesdunek aurkeztutako dokumentazioaren akats formalak zuzentzeko.

TARIFAK

Tarifak aplikatuko dira 2023-2024 ikasturterako tarifak arautzen dituen Hezkuntza Departamentuko araudian ezarritakoarekin bat.

BAREMOA

-Familia unitatea: gehienez ere 15 puntu.

–Deialdi eta ikastetxe beretan bi seme-alabarendako edo gehiagorendako ikaspostua eskatzen duten familiak (ikaspostuaren erreserba sartzen da, baita jaio gabeko haurrendako eskaera ere): 15 puntu.

–Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun egoeran daudenak, 5 puntu.

–Familia ugariak: 5 puntu.

–Familia unitateko kideren batek %33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo sentoriala badu, behar bezala aitortua: 4 puntu.

–6 urtetik beherako bi haur edo gehiago dituzten familien kasuan: puntu bat haur bakoitzeko.

2.2. Aitaren, amaren edo legezko ordezkarien lan eta gizarte egoera edo egoera akademikoa: gehienez ere 20 puntu.

a) Familia orokorrak.



Guraso berak bi egoera posible baditu, horietako bat bakarrik hartuko da kontuan, puntuaziorik handiena duena:

–Gizarte Segurantzaren alta emanda lanaldi osoan edo partzian lan egiten duen guraso edo legezko tutore bakoitzeko, edo behar bezala justifikatutako dedikazio handia eskatzen duten ikasketara arautuak egiten ari den guraso edo legezko ordezkari bakoitzeko, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliazintasun handiko egoera aitortuan dagoen guraso edo ordezkari bakoitzeko: 10 puntu.

–Lana bilatzen ari den guraso edo legezko tutore bakoitzeko: 5 puntu.

b) Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun egoeran daudenak.

–Gizarte Segurantzaren alta emanda lanaldi osoan edo partzian lan egiten duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako dedikazio handia eskatzen duten ikasketara arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliazintasun handiko egoera aitortuan dagoena: 20 puntu.

–Lana bilatzen ari den gurasoa: 15 puntu.

c) Zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoa, guraso bakarreko familia edo guraso bakarreko familia egoeran dagoena izan gabe.

–Gizarte Segurantzaren alta emanda lanaldi osoan edo partzian lan egiten duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako dedikazio handia eskatzen duten ikasketara arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliazintasun handiko egoera aitortuan dagoena: 20 puntu.

–Lana bilatzen ari den gurasoa: 15 puntu.

2.3. Per capita errenta: gehienez ere 15 puntu.

PER CAPITA ERRENTA, EUROTAN	PUNTUAK
> 15.000	1,5
12400,01-15000	3,0
10700,01-12400	4,5
9300,01-10700	6,0
7980,01-9300	7,5
6650,01-7980	9,0
5500,01-6650	10,5
4500,01-5500	12,0
3350,01-4500	13,5
< 3.350,01	15,0



2.4. Eraginpeko eremu geografikoa: 20 puntu, gehienez.

-Udal-titulartasuneko eskoletarako:

–Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barneko udalerrri batean (horretarako akordioa ezarria duten udalerrietan): 20 puntu.

–Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan: 8 puntu.

–Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik erakunde titularraren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batean: 5 puntu.

-Hezkuntza Departamentuaren titulartasuneko ikastetxeak.

–Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean: 20 puntu.

–Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean: 8 puntu.

–Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik erakunde titularraren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batean: 5 puntu.

2.5. Beste irizpide batzuk.

Hautapen batzordeak premiazko beste egoera larri batzuk –pertsonalak, familiakoak edo sozialak– hartzen ahal ditu kontuan, behar bezala frogatuak eta aurreko ataletan bildu ez direnak: 10 puntu gehienez.

3.–Puntuazioko berdinketa kasuak ebaztea.

Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzeko azken ikaspostua eskaintzean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

–Familia-unitatean apartatuan (2.1) puntu gehien lortu dituenak.

–Per capita errentaren apartatuan (2.3) puntu gehien lortu dituenak.

–Eraginpeko eremu geografikoaren apartatuan (2.4) puntu gehien lortu dituenak.

–Gurasoen edo legezko ordezkarien lan eta gizarte egoerari edo egoera akademikoari buruzko apartatuan (2.2) puntu gehien lortu dituenak.

–Beste irizpide batzuen apartatuan (2.5) puntu gehien lortu dituenak.

–Jendaurreko zozketa: Hezkuntza Departamentuan ikasleak onartzearen gaineko eskumena duen organoak 2023ko martxoaren 3an egingen duen zozketaren emaitza aplikatuko da. Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 4ko 46/2021 Foru Legearen 13.6 artikuluan xedatuta dago zozketa hori.